

Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza ikasketa berriak onartu dizkio Anecak Huheziri

2009/02/04

Aneca goi hezkuntzako ebaluazio agentziak onartu egin dizkio Huhezi fakultateari **Lehen Hezkuntza** eta **Haur Hezkuntza** ikasketa berriak. Anecak otsailaren hasieran jakinarazi dio Huheziri erabakia, eta horren arabera ikasketa biak **titulu ofizial** izango dira, erabat egokituta Europaren ikasketa plan berrira, eta irakatsiko dira datorren ikasturtetik aurrera.

Aneca ebaluazio agentziaren arabera, Huhezik Lehen Hezkuntzarako eta Haur Hezkuntzarako aurkeztutako proposamenak "**berritzaileak dira**, oinarrituta daude **erreferente sendoetan** eta planteatuta daude **etorkizunera begira**, erabat egokituta Hezkuntzaren Legera eta Europaren Kualifikazio Sistemak egindako gomendioetara".

Aneca

Aneca goi hezkuntzako ebaluazio agentzia da, Espainiako Hezkuntza Ministerioak sortua, eta Madrilen dago. Une honetan bera arduratzen da ebaluatzeaz estatu espainiarreko unibertsitateek aurkeztutako titulu ofizial berriak. Kasu honetan, akademikoek, profesionalek eta ikasleek osatu dute **Ebaluazio batzordea**, denak hautatuak *Verifica* izeneko programak ezarritako irizpideen arabera.

